

Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (U.E.T.S.)

Euskarari Udaletan nolabaiteko presentzia emateko ihardunari ekin zitzaion une beretik, gutxi asko denok azaldu dugu elkarlana bideratzeko premia. Hitzetik hortzera erabili dugu koordinazio hitza. Etengabe mahairatu izan dugu esperientziak trukatzeko behar larria. Izan ere, konturatu, konturatzen baikara gure “laborategietan” (Udaletxeetako lau hormen artean) esperimentuak egitera mugatzeak daukan arriskuaz, esperimentu horiek beste hainbatekin eta errealtate zehatz eta zabalarekin kontrastatzen ez diren heinean, behinik behin.

Arazoak, ordea, koordinazio egarri hori asetzerakoan sortu eta sortzen dira. Kontutan hartu behar da hizkuntz normalizaziorako iharduna, urteak pasa badira ere, berria dela oraindik udal-bizitzan: zoritxarrez baina haur jaio berria dugu hizkuntz normalizazioa. Ondorioz, Udaletxe askotan ez da ia ezertxo ere egin arlo honetan, eta gutxi edo asko baina zerbait egin duten Udalak irizpide bateraturik gabe aritu dira, kasurik gehienetan “euskararen langileon” bizkar utzi delarik teknikarien ez baizik agintarien arduratakoa izan beharko lukeen eginkizun bat: udalen hizkuntz politikaren ardatz nagusiak definitzea, hain zuzen ere. Egia da halere, azken urteotan joera hau zertxobait zuzentzen ari dela zenbait Udaletan, hizkuntz eskakizunen dekretua edota euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzak direla eta.

Bidea ibiliz egiten omen da, eta hankasartzeak hankasartze, inolako ezpairik gabe esan liteke urteotan urratu dugun bidea ez dela alferrikakoa izan. Zer ez den egin behar duela urte batzuk baino garbiago daukagu. Ekintza emankorrak eta ugari burutu ditugu. Euskararen presentzia erruz gehitu da zenbait Udaletan, eta benetako normalizaziorantz ere eman da aurrerapauso bat baino gehiago. Lehen adierazi bezala, badirudi Udal Erakundeetan normalizazioaren ikuspegia hedatzen ari dela.

Udaletako Euskara Teknikarien koordinazioa dela bide burutu diren ekintzen artean aipagarriak dira irakaskuntzan, familia arloan, gazteen arloan eta diruetxeetan egin diren kanpainak: “Euskara gazteena”, “Alfabetatze kanpaina”, “Transmisio kanpainak”, aspaldi xamar egindako “Kontuak euskaraz: zure esku dago”, etab. Aipatu

kanpaineek eragin garrantzitsua izan dutelakoan gaude, eta gure uste apalean, eragin horren arrazoirik nagusia UETSen koordinatzen garen teknikarion elkarlana izan da.

Alabaina, eratu dugun egitura honek lan handia dakarrela kontutan izanik, gauzak txukun egitekotan behintzat, derrigorrezko irizten diogu UETSen koordinazioa eta lan administratiboa bideratzeko beste erakunderen batek (EUDEL, HPIN, HPZN...) bere egituraren baitako (norbaitzu) norbait lanean jartzeari, bestela orain artean bezala, gauzak egin egingo dira apika, baina nekez eta dolorez, eta okerragoa dena, udaletako euskara teknikariak nekatu edota aspertuz gero, norbera bere zuloan sartu eta bere gisara ibiltzeak dakarren arriskuarekin egingo dugu topo berriro ere, eta jakina, elkarlana horrenbeste aipatzen den garai hauetan ez litzateke berri ona izango.

Gure lana eraginkorragoa, merkeagoa eta hobe izan dadin beharko genukeen "gainegituraz" esandakoaz gain, gatozen UETSen helburu, eginkizun eta funtzionamenduaz azalpenak ematera:

1.- UETSen helburuak eta eginkizunak

Helbururik nagusia udal-administrazio eta udalerrietan euskararen erabilera normaltzea izanik, helburu nagusia lortzeko urratu beharreko bidean arazo zehatzei irtenbide bateratua emateko koordinazio bideak ahalbidetzea da sarearen eginkizuna.

Lau dira bide horri jarraiki jorratzen diren ildoak:

- Esperientzia trukaketa.
- Irizpide bateraketa.
- Lanak elkarrekin burutzea.
- Koordinazioa.

2.- UETSen funtzionamendua

-Sareak bi eratako bilkurak egiten ditu:

- Arruntak: hilabetean behin, alde zuzenetik finkaturiko aztergai-zerrendari jarraiki burutzen direnak.

- Gai bakarrekoak: udal batek -edo batzuk- gai zehatz bati buruz eska ditzakeenak.

Bestalde, ez guke lan hau bukatu nahi udaletako euskara zerbitzuek hizkuntz normalizazioa egoki bideratzeko izan beharko luketen izaeraz, kokaguneaz eta egitekoaz gure iritzi eta usteak azaldu gabe, izan ere, oso udal gutxi egiten baitituzte bere ondoren agertuko ditugunak eta azken aldian, zoritxarrez, hainbat atzerapauso emateko prest ere agertu da zenbait udal:

1- Udal hizkuntz politikaren oinarriko irizpideak

A) Politika orokorraren atala

Udalaren hizkuntz politika, Udalaren politika orokorraren atal bat da eta horren arduraren nagusia korporazio eta alkatearena da. Herriak hautatutako kargudunen egitekoa, besteak beste, administrazioa den neurrian euskararen erabilpenaren normalizazioa

zak, Udal barnean zein udalerrian, eskatzen dituen betebeharrei erantzuteko egitura egokitzea, bitartekoz hornitzea eta hizkuntz plangintzaren bidea markatzea da. Euskara Zerbitzuaren ardura aldiz, korporazio eta alkateak markatutako bide hori ahalik eta hobekien urratu eta tajutzea delarik, aholkularitza lana ahaztu gabe.

B) Erabakia non, hizkuntz irizpidea han

Hizkuntza Udaleko atal guztietan izan behar dugu gogoan. Ez dago hizkuntzarik gabeko udal-ekintzarik. Hizkuntzaz batean edo bestean, baina beti hizkuntzaren batean, bideratzen dira ekintzak eta proiektuak edota plangintzak. Erabakiak hartzen diren gune guztietan egon behar du euskararen erreferentziak eta erabakiaren arduraduna, bere ataleko hizkuntz erabilpenaren arduraduna ere bada. Hauxe da hizkuntz normalkuntzaren oinarritzko irizpide garrantzitsuenetako bat, erabakia non hizkuntz irizpideak han behar du.

C) Izaera interdepartamentala

Aurreko puntuan aipatu arrazoiak dela medio, derrigorrezkoa da Euskara Zerbitzuak izaera interdepartamentala izatea eta gainerako zerbitzuetan proiektzioa izatea, Udalak erabakitako hizkuntz politika beste zerbitzu-buruekin batera garatu eta aurrera eramateko.


D) Eginkizunak

Udalaren hizkuntz politika aplikatzeko derrigorrezkoa da, beraz, hizkuntz politika hori planifikatzea, antolatzea, koordinatzea, abian jartzea eta kontrolatzea. Horiek dira, Euskara Zerbitzuaren eginkizunak, bai Udal barnera begira bai Udalerrira begira.

2- Euskara Zerbitzuaren kokagunea

Euskara Zerbitzua izaera hertsiki hierarkikoa duen egitura batean kokatzea, hots, agintearen bertikaltasunak zerbitzu ezberdinen komunikaezintasuna dakarren batean, ez da behar adinakoa Euskara Zerbitzuaren betebeharren garapen on baterako, izan ere, Euskara Zerbitzuaren proiektzioa gainerako guztien gain egotea ezinbestekoa baita, Udalaren hizkuntz politikaren aplikazio koherentea egiteko Udal administrazioan nahiz herrian.

Hau horrela izan dadin, honako organigrama litzateke egokiena:



Era honetako organigramak babestuko luke Euskara Zerbitzuak beste zerbitzuegan behar duen proiektzioa hizkuntz politika egoki bideratzeko, bestela, gainontzeko zerbitzuen pare jarritz gero, zaila egingo litzaiolke besteekin izan beharreko harremanak gauzatzea eta udalaren hizkuntz politika behar bezala bultzatzea.

3- Euskara Zerbitzuaren izaera

Interdepartamentala: Oinarrizko irizpideetan eta zerbitzuaren kokaguneaz ihardundako puntuan adierazi bezala ezinbestekoa da euskara zerbitzuak gainerako zerbitzuetan proiektzioa izatea, udalaren hizkuntz politika aplikatu, planifikatu, antolatu, koordinatu, gauzatu eta kontrolatzeko.

Aholku emailea: Bere eskumenen barruan dagozkion politika eta harremanei buruz, politikari, udal-langile nahiz edozein herritarri lekuan lekuko hizkuntz plangintza modu egokian garatzeko aholkuak ematea edota beren arazoak konponbidean jartzen saiatzea.

4- Euskara Zerbitzuaren funtzio orokorrak

Lekuan lekuko hizkuntz egoeraren diagnosis egin ondoren, berau normalizatzeko Plangintza Orokorra egitea, garatzea eta ebaluatzea.

Euskararen normalkuntza ez da borondate kontua soilik, hor daude legeak eta araubideak, eta, gainontzeko arloetan bezala, bete egin behar dira. Beraz, orain artean onartutako arauak zaindu eta bete araztea da beste zereginetako bat.

Udalak onartutako Euskararen Udal-Ordenantza edota arauak aintzakotzat hartuz, bertan agertzen diren artikulak garatu eta bete daitezten bideak egin, euskararen erabilerearen urratsak jorratzeaz ahaztu gabe. Honek jarraipen lana eskatzen du eta araudia betetzen dela egiaztatzeko ahalbidea.

Arlo bakoitzeko zerbitzu-buruei ordenantzaren edota arauen garapena beraien lanean nondik-nora bideratu behar duten adierazi, aplikatzerakoan sortzen zaizkien zalantzetan aholkuak lortuz eta laguntza eskaintzea.

Hizkuntz eskakizunak lortzen doazen neurrian erabilera plangintza tajutzea, zerbitzuz-zerbitzu nahiz pertsonaz-pertsona.

Euskararen erabilera txukuna eta egokia zaintzea, idatzizko erabilerari garrantzia emateaz gain ahozkoari ere arreta berezia eskainiaz, ahozkoan herri hizkera zainduz eta idatzizkoan batua, bien arteko oreka onuragarria bultzatuz.

Udal barnean zein kanpoan euskararen normalkuntzarako eta sustapenerako iharduketa planen prestaketa, kudeaketa, jarraipena eta kontrola.

Euskararen alorrean lanean diharduten herriko nahiz beharra ikusiz gero kanpoko elkarte, talde edota beste zerbitzu teknikoekin harremanak izan eta hainbat lan koordinatuz bideratu.

Euskara Batzordearen egitaraua eta aurrekontuaren prestaketa, jarraipena eta kontrola.

UETS (Udaletako Euskara Teknikarien Sarea)

Amaiera moduan, berriro ere gure asmoak agertu nahi genituzke, batetik, erakunderen batek (HPIN, HPZN, EUDEL,...) gu koordinatzeko egituraren bat sortzea eta bestetik, Euskara Zerbitzuek beren lana ongi bideratzeko derrigorrezkoak dituzten lehen aipatutako izaera, udal-organigraman kokapena eta funtzioak udalek onartzea, hau jakina, zerbitzuak dauden herrietan, eta zerbitzurik ez dagoenetan, euskara zerbitzua sortzea.

UETS (Udaletako Euskara Teknikarien Sarea)